

PRENTSA-OHARRA

Laguntzaile digital berri bat, parke eoliko mantentzea optimizatzeko

- *Tekniker zentro teknologikoak eta Tamoin enpresak software bat garatzen lagundu dute aerosorgailuen akatsak eta matxurak diagnostikatzeko*
- *Soluzioa eskuragarri dago mugikorreko app eta web gisa, mantentze-lanen parteari lotutako informazioa jasotzen du, eta langile teknikoei proposatzen die ataza-sekuentziarik egokiena arazoa konpontzeko*
- *Merkatuko beste aplikazio batzuetan ez bezala, tresna berriak eboluzionatu egiten du eta gomendioak denboran hobetzen ditu esperientzia operatibotik abiatuta*

[Eibar, 2024ko Martxoak 12] – Instalazio industrialetan, energetikoetan edo berriztagarrietan mantentze-zerbitzuez arduratzen diren teknikarien eta enpresen lanik ohikoenetako bat da matxurak konpontzea. Eragiketa horiek gehiago digitalizatuz gero, ahalik eta gehien optimizatuko dira, eta modu eraginkorragoan eta errentagarriagoan egingo dira.

Tekniker zentro teknologikoa, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kidea da, eta esperientzia handia du hainbat arlotan mantentze industrialeko zereginak automatizatzen. **Tamoin** nazioarteko enpresako Mantentze Eolikoko Ingeniaritza sailarekin batera, software berri bat diseinatu eta garatzen lagundu du, Adimen Artifizialeko sistema batean oinarritua, matxuren diagnostiko automatikoa egiteko eta teknikariei, mugikorreko app baten bidez, akatsak arin konpontzeko gida oso bat eskaintzeko gai izango dena.

Soluzioa Interneterako konexiorik gabe erabil daiteke, baita ordenagailuan, hizkuntza askotan eta energia eolikoa sortzeko hainbat teknologiarri jarraiki ere. Soluzioak mantentze-parteari lotutako beharrezko informazioa biltzen du, aerosorgailuaren egoeraren diagnostikoa ematen du, detektatutako arazoa konpontzeko zeregin-sekuentziarik onena proposatzen du eta

gomendioak arrakasta-maiztasunaren arabera egokitzeko egindako urratsak erregistratzen ditu.

"Teknikariek egindako informazioaren trazabilitate osoa modu egituratuan eramanez gero, etorkizunean mantentze-denborak murrizteko eta optimizatzeko erabil daiteke, eraginkortasunean irabaziz lan egiterakoan eta aire-sorgailuetan gelditzeko denborak murriztuz", nabarmendu du Egoitz Kondek, Teknikerreko ikertzaileak.

Bilakaera esperientziarekin batera

Merkatuan eskuragarri dauden beste aplikazio batzuetan ez bezala, Tamoin eta Tekniker enpresen artean garatutako software berriak denboran eta esperientzia operatiboan eboluzionatzen duten diagnostiko-gidak sortzeko aukera ematen du, matxura-egoera bakoitzean teknikariak aerosorgailura ordezkoko pieza egokiak eramatea errazteko.

Energia, Oil & Gas, Berriztagarri eta Industrialeko sektoreetarako soluzio integralak ematen espezializatutako Tamoin enpresaren helburu nagusia da aerosorgailuetan egiten dituen eragiketa- eta mantentze-zerbitzuei (O&M) buruzko beharrezko ezagutza sortzea, aktiboan egoeran oinarritutako mantentze-eredu baterantz aurrera egiteko eta energia berriztagarria sortzeko edozein instalaziotara estrapolatzeko.

Horretarako, Teknikerrek mantentze industrialaren kudeaketaren kostu-efizientzia ebaluatzen duen esperientzian konfiantza izan du, baita datuen analisisan eta kudeaketan ere, osagaien higaduraren monitorizaziorako eta pronostikorako, eta sistema mekatronikoetan malfuntzionamenduak detektatu, diagnostikatu eta aurreikusi ahal izateko.

Hori guztia askotariko eskaintza teknologikoan sartuta dago, honako hauek biltzen dituena: simulazio matematikoa, ad hoc garatutako merkataritza-sentsorikaren hautaketa, CBM monitorizazio-sistemen garapena (Condition Based Maintenance), osagaien osasunaren modelaketa, data-mining eta machine learning teknologien erabilera datuen ezagutza ateratzeko, eta Big Data teknologien eta IoT plataformen erabilera.

Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Unai Macias
unai@guk.eus | Tel. 690 212 067